

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1624

330/2016 EBAZPENA, apirilaren 4koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Adolfo Delgado Fontaneda jauna Araba Erakunde Sanitario Integratuko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari izendatzen duena.

Aztertu dugu Araba Erakunde Sanitario Integratuko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen urtarrilaren 25eko 63/2016 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2016ko otsailaren 10eko EHAA (27. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak «curriculum vitae»-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Adolfo Delgado Fontaneda jauna deialdiko lanposturako proposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Adolfo Delgado Fontaneda jauna izendatzea Araba Erakunde Sanitario Integratuko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari.

Bigarrena.– Izendapen honek 2016ko apirilaren 4tik aurrera izango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 4a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.